



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2021EKO APIRILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko apirilaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Ricardo Arangoa, Santos Etxegia, Julen Beunza, Olatz Dorai eta M^a Mar Ansorena.

BERTARATU EZ DIRENAK: Xabier Azpiroz.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Martxoaren 18an egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

2021/24 alkate ebazpen baimena emanaz Oihanzabal Guraso Elkarteari, martxoaren 16an, asteartean, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, arratsaldeko 17:30etatik 19:30tara bilera egiteko.

- 2021/25 alkate ebazpena: Baimena ematea Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari, apirilaren 29an, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, arratsaldeko 17:15etatik 19:15etara gurasoendako hitzaldi bat egiteko.

- 2021/26 alkate ebazpena, baimena emanaz Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari, apirilaren 30ean, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Transformatzen dokumentala emititzeko eta Naizen elkarteko familien testigantzak ezagutzeko
- 2021/27 alkate ebazpena: Onartzea Ignacio Iribarren Sotilek 2021. Urterako epaitzaren uko eskaera eta urtarrilaren 25ean eskaera egin ondoren ordaindutako fiantza bueltatzea.
- 2021/28 alkate ebazpena Joaquin Legarrak egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera onartu Gartzarongo Asuncion 6 kaleko etxebizitzan leihoak aldatzeko, dirulaguntza 60.20 eurokoa da.
- 2021/29 alkate ebazpena Karmele Legarrak egindako zaharberritzeko 119,90 euroko dirulaguntza dirulaguntza onartu, Gartzarongo Asuncion 6 kaleko etxebizitzan leihoak aldatzeko.
- 2021/30 alkate ebazpena Miguel Legarrak egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera onartu 60,20 eurokoa Gartzarongo Asuncion 6 kaleko etxebizitzan leihoak aldatzeko.
- 2021/31 alkate ebazpena Juan Arangoak egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera 112,40 eurokoa onartu, Gartzarongo Asuncion 6 kaleko etxebizitzan leihoak aldatzeko.
- 2021/32 alkate ebazpena ikusita Geserlokalen egindako txostena, Valeriano Aldaz Tellecheak 2012- 2016. Urteen artean, ordaindu gabe duen zorraren ingurukoa, onartzea 2012-2015 urteen arteko zorra preskribatua dagoela, eta hortaz 1.385,39 euro preskribatuak daudela, Nafarroako Tokiko Ogasunen ForueLEgarean 17. Artikuluaren arabera eta ez onartzea 2016ko zorraren preskripzioa.
- 2021/33 alkate ebazpena, onartzea obra baimena ematea Berueteko 11. Poligonoko 431. Lursaileko eraikina eraberritzeko 265.100,54 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/34 alkate ebazpena onartuz Ondoren zehazten den obra baimena ematea: Ihabengo Juangoxenea etxeko sabaian isolamendua jarri 4620 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/35 alkate ebazpena Ondoren zehazten den obra baimena ematea: Arraratsko 14. Poligonoko 431. Lursailean dagoen etxebizitzan kalefakzio sistema eta eguzki plaka jartzeko 21.373 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/36 alkate ebazpena obra baimena emanaz Arraratsko 14. Poligonoko 431. Lursailean dagoen etxebizitzan teilatua berritu.40.500 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/37 alkate ebazpena bereizte eta elkartzeko baimenak onartuz, Arraratsko 14. Poligonoko 17. Lursailetik 85.53 m² bereiztuz eta poligono bereko 272. Lursailerarekin elkartzuz.
- 2021/38 alkate ebazpena ondoren zehazten den obra baimena emanaz: Arraratsko 14. Poligonoko 35. Lursailean dagoen etxebizitzan beheko solairuaren zati bat eta jardinarekin beste zati bat zolatzea 1.310 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/39 alkate ebazpena obra baimena onartuz Aizarotzko Igoabide 6 kalean egurtegia egiteko 1.240,88 euroko aurrekontuarekin.
- 2021/40 alkate ebazpena onartuz behin behineko, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Erdiko Karrika 8 B helbidean dagoen etxebizitzaren salmenta, M^a Esther Echeverria Lazcanok egindako eskaerari lotuta, Nafarroako

Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita salerosketak ez duela gainbalioa sortu

-2021/41 alkate ebazpena ondoren zehazten den obra baimena emanaz:

Igoako 9. Poligonoko 16. Lursailean dagoen etxebizitzan teilatua eta fatxadak berritzeko, bere aurrekontua 89.014,84 euro.

-2021/42 alkate ebazpena onartuz Jose Miguel Pardo Encisori 1.000 euroko diru laguntza 2021eko otsailaren 25ko batzarrak onartutako ostalaritzarako dirulaguntza deialdiaren arabera.

- 2021/43 alkate ebazpena onartuz Gure Ametza elkarteari, 1.000 euroko diru laguntza 2021eko otsailaren 25ko batzarrak onartutako ostalaritzarako dirulaguntza deialdiaren arabera.

- 2021/44 alkate ebazpena onartuz Ignacio Soraluze Arreguiri, 1.000 euroko diru laguntza 2021eko otsailaren 25ko batzarrak onartutako ostalaritzarako dirulaguntza deialdiaren arabera.

- 2021/45 alkate ebazpena onartuz Ernaizu S. Coop elkarteari, 1.000 euroko diru laguntza 2021eko otsailaren 25ko batzarrak onartutako ostalaritzarako dirulaguntza deialdiaren arabera.

- 2021/46 alkate ebazpena onartuz baimena emanaz Aizarotzko Auzokide Elkarteari, Maitzaren 7 eta 14an arratsaldeko 16etatik 21etara eta maiatzaren 8,15 eta 22an goizeko 10etatik 13etara , Aizarotzko kultur etxeko aretoa erabiltzeko. formakuntza ziklo bat egiteko.

2021/47 alkate ebazpena baimena emanaz Basaburua Imotzko Sare Elkarteari, apirilaren 16an, Apeztegiberriko lehen edo bigarren pisuko aretoetako bat erabiltzeko (izena ematen dutenen arabera), arratsaldeko 19tan, hitzaldi bat egiteko.

2021/48 alkate ebazpena Baimena emanaz Aralar Musika Eskolari, ,Oihanzabal ikastetxeko psikomotrizitate gela erabiltzeko musika eta mugimendu ikastaroa egiteko, apirilaren 16,23 eta 30ean eta maiatzaren 4an arratsaldeko 16etatik 19etara.

3.- 2021 lan egutegia.

Alkateak urtero legez urteko lan egutegia onartu behar dela adierazten du, langileek aztertu ondoren. Eta hortaz hau izanen litzateke egutegi proposamena.

–Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

–Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

–Martxoaren 19a: San Jose.

–Apirilaren 1a: Ostegun Santua.

–Apirilaren 2a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 5a: Pazko astelehena.

–Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

–Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

–Azaroaren 1a: Santu guztien eguna

–Abenduaren 3a: Frantzisko Xabierkoaren eguna

–Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna

–Abenduaren 7a. Konstituzio eguneko zubia.

–Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbia.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Alkateak adierazten du langileek aukera daukatela nahi izan ezkeror urriaren 12an Espainiako Jai Nazionala. eta abenduaren 6an konstituzio egunetan lan egiteko eta jai egun horiek beste egun batekin aldatzeko.

Gainera 5 jaiegun, eta 2 ordu eta 40 minutu gehiago ezarri dira, langile bakoitzak hautatzekoak, baldintza izanik ez dela udala jendearendako itxiko.

Orobat, baliogabeak izango dira, 2021ean epeak kontatzeari dagokionez, larunbata eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak

Basaburuko Udaleko lanaldiaren urteko lanordu kopurua 1.592 izango da eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 7:00etatik 16:00etara.

A) Jendea hartzeko eta Erregistro orokorra irekitzeko ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

B) Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

Horrez gainera, langileek probesteko 3 egun izango dira, norberaren aferetarako, Alkatetzari aurretik behar beste denboraz eskatu eta arrazoitu behar zaizkionak.

C) Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi sarteren bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2021erako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Bildutakoek aho batez onartzen dute aipatutako egutegia eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean. argitaratua izan dadin agintzen dute .

Gai ordenetik kanpo dagoen gaia presagatik gai ordenean sartzea aho batez onartzen dute bildutakoek.

Aizarotzko UOR unitatearen birzatiketa proiektuaren aldaketa. Behin betiko onespenera.

Alkateak azaltzen du espediente honetan birzatiketa proiektua tramitatu zela eta ondoren birzatiketa horren aldaketa bat sustatu zuten, beti ere unitatearen mugen barruan, unitatea osatzen duten lursailen arteko aldaketa bat.

Aldaketa hori hasiera batez onartu zen eta behin betiko onespenerako Lurralde Ondasun zerbitzutik baieztatu txostena behar zen, udal arkitektoaren txostenaren arabera. Aipatutako zerbitzutik baieztatu txostena jaso ondoren behin betiko onespenera eman ahal zaio birzatiketa proiektuaren aldaketari.

Hortaz, bildutakoek Lurralde antolamendu eta urbanismo legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 152 eta 74. Artikuluetan arautzen dutena jarraituz, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea Aizarotzko UOR unitatearen birzatiketa proiektuaren aldaketa.**
- **Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu eta sustatzaileei ere jakinarazi.**

4.- Mozioak.

Alkateak azaltzen du, nola Aezkoako udaletik jaso den Mikel Zabaltzaren heriotza argitzearen inguruko mozioa, ondoren irakurri eta transkribatzen dena, udalak batzarrean onartzeko eskatuz:

“Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duen adierazpena Mikel Zabalza (1952-1985) beste pertsona batzuekin batera atxilotu zuten duela 35 urte ETako kide gisa, eta Donostiako Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zuten. Mikel Zabalza bizirik sartu zen kuartelera eta, 20 egun geroago, hilda agertu zen Bidasoa ibaian. Baina zer gertatu zitzaion Mikel Zabalzari? Gaur egun indarrean dagoen bertsio ofizialaren arabera, inguru horretan ETaren zulo bat egiaztatzen ari zirela, Zabalzak guardia zibilengandik ihes egin zuen, ibaira erori zen eta itota hil zen. Atxilotuek torturak salatu zituzten, eta gizartearen zati handi batek ez zuen inoiz sinetsi Guardia Zibilaren bertsioa. Público hedabideak 2021eko otsailaren 22an argitaratu zituen grabazio batzuek agerian uzten dute Mikel Zabalzaren heriotza Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturengatik izan zela. Grabaketa Luis Alberto Perote Mikel Zabalza atxilotu zuten garaian CESIDeko (Defentsaren Informaziorako Goi Zentroko) koronelaren eta Galindoren aginduetara zegoen Pedro Gomez Nieto Guardia Zibileko kapitainaren arteko elkarrizketa da. Grabazio horretan esaten denez, Intxaurrondon jasandako torturen ondorioz hil zen Zabalza; zehazki, buruan poltsa aplikatzeagatik. Grabazio berean Gomez Nieto entzun daiteke "eskuetatik joan zaie, galdeketa geratu zaie" esanez. Nahiz eta zantzu guztien arabera Zabalza Intxaurrondoko kuartelean jasandako torturen ondorioz hil zen, 35 urte geroago, familiak oraindik ez du errekonozimendu ofizialik eta ez dute inolaz ere zigortu. Zabalza familiak ez du egirik, ez eta, beraz, justiziarik eta erreparaziorik ere. Auzitegiek behin baino gehiagotan erabaki dute auzia artxibatzea, froga faltagatik, gertatutakoa argitu gabe eta erantzukizunik zehaztu gabe. Heriotza horren zigorgabetasunak ezin du aurrera jarraitu. Gure ustez, grabazio horiek funtsezkoak izan daitezke kasuan, eta kontuan hartu beharrekoak dira. Horregatik, honako hau erabaki da: 1.- Tortura legez kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa

gaitzestea. 2.- Espainiako Gobernuari espediente honekin zerikusia duen guztia desklasifikatzeko eskatzea. 3.- Guardia Zibileko kapitain Gómez Nietok eta garai hartan CESIDeko Juan Alberto Peroteren koronel buruak parte hartzen zuten audioak agertu ondoren, audioen edukia sakon ikertzeko eskatzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko egia jakiteko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa eta jakinarazpena Aezkoako udalera bidaltzea agintzen dute.

5- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Mimukai proiektuarekin lotuta beste bilera bat egin da udal ordezkariekin, proiektuaren forma juridikoa zein izanen litzatekeen aztertzeko, abokatu baten aholkularitzaren bidez kooperatiba integrala bezala alta ematea adostu da. Bertan mota ezberdinetako sustatzaileak sartzeko aukera ematen du modalitate honekin, bai ekoizleak bai cooworking langileak, udalak eta abar...

Bestetik aipatu zen ere Leitzan azpiegiturak izateak erabiltzaile batzuentzat urrun zela, ez cooworking atala erabiliko dutenentzat, bertan gainera beraien arteko sinergiak sortuko baitira.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Haur eskolako aurre matrikula kanpaina bukatu ondoren 13 familiek eman dute izena eta beste bi familia gehiago epez kanpo galdetu dute matrikula egiteko nahia adieraziz. Hortaz hezkuntza departamentuan eskaera egin da bigarren unitatea baimentzeko, horrek haur eskolako sorrera hitzarmenaren aldaketa ekarriko luke eta eskaera egin duten familia guztiak onartuk izatea.

Bestetik aipatzen du asteazkenean Eskola Kontseilua bildu zela jantokiaren finantzaketaren inguruan hitzegiteko. Eskolan sortu den baso eskola osatzen duten familiek bakarrik ordaintzen dute jantokia eskolara umeak eramaten dituzten egunetan eta horrek NGak diru laguntza murriztu izana ekarri du. Guraso Elkarteak egindako bileran adostu zen familia horiek hartu beharko dutela hemendik aurrera jantokiko umeen gastu osoa eta ikasturte hasieratik apirila arte sortu den gastu eskola eta familien artean ordaintzea.

Kontzejuan Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa

Saldiasko udalak Basaburuko ehiza barrutian sartzeko eskaera egin du eta kontzejuetara bideratu da beraien oniritzia jasotzeko maiatzaren 21erako, ondoren NGan tramitazioa jarraitu ahal izateko.

Berdintasun Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Mankomunitateko berdintasun batzordearen bilera egin da eta bertan aurrekontua eta urteko plangintza aurkeztu zen. Baita ere adostu zen estatuko itunaren ekarpenak Mankomunitatik bideratzea, horrela antolaketa eta kudeaketa hobea ematen zaie aipatutako ekarpenei, udal txiki batzuek kasuan ez baitute ahalmenik iharduerak burutzeko.

6- Informazio orokorra.

Ez dago.

7. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:20 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.